



ibermutuamur

Gizarte Segurantzaren 274.
mutua laguntzailea

Ibermutuamur,
zure mutua

Euskarazko edizioa

Ibermutuamur, zure mutua

Gizarte Segurantzarekin kolaborazioan jarduten dugun mutua laguntzailea gara, eta zure enpresak kontratatu gaitu, laneko istripu edo gaixotasun bat izanez gero, zure beharrei erantzun osoa eman diezaiegun, osasun-asistentziako eta errehabilitazio-asistentziako jarduketan eta kudeatzen ditugun prestazio ekonomikoen eta sozialen bidez.

Zer zerbitzu eta prestazio ematen dizkizu mutua?

Laneko istripuren edo gaixotasunen bat baduzu, Ibermutuamurrek honako zerbitzu hauek emango dizkizu:

Osasun-asistentzia: larrialdi medikoak anbulatorio eta ospitale-asistentzia, eta espezialitate mediko-kirurgikoko zerbitzuak ematen ditugu.

Errehabilitazioa eta fisioterapia: errehabilitazio-zerbitzua tratamendu bakoitzean teknikarik egokienak (hidroterapia, termoterapia, elektroterapia, laserterapia, magnetoterapia, etab.) aplikatzen dituzten errehabilitazioko medikuz eta fisioterapeutaz osatuta dago.

Lanera berriz egokitzea eta laguntza sozial eta psikologikoa: mediku errehabilitatzaile, fisioterapeuta, psikologo, gizarte-langile eta helduen prestakuntzako adituz osatutako diziplinarteko talde baten bidez, laneko istripu bat izan duten pertsonen lanean berriz txertatzen laguntzen diegu.

Prestazio ekonomikoen estaldura: Laneko istripu edo laneko gaixotasun batek sorrarazitako prestazio ekonomikoak geure gain hartzen ditugu: aldi baterako ezintasuna, baliaezintasun gabeko lesio iraunkorrak, ezintasun iraunkorra (partziala, osoa, absolutua edo baliaezintasun handia), heriotza eta biziraupena (heriotza, alarguntza eta zurtasun-laguntzak edota familiartekoen aldekoak).

3/2007 Lege Organikoa, 295/2009 Errege Dekretua eta 1148/2011 Errege Dekretua indarrean daudenetik, honako prestazio ekonomiko hauek ere ordaintzen ditugu: haurdunaldiko arriskuari eta edoskitzaro naturaleko arriskuei dagokiena eta minbizia edo bestelako gaixotasun larria duten adingabeak zaintzekoa.

Gizarte-prestazioak: Prestazio Bereziak Batzordearen bidez, arreta ematen diegu laneko istripu edo laneko gaixotasun baten ondorioz langileei sorrarazitako behar berezi eta indibidualei, aldi baterako ezintasuneko edo ezintasun iraunkorreko kasuetan.

Zer egin behar da zerbitzuak eta prestazioak eskuratzeko laneko istripu edo gaixotasun bat gertatuz gero (kontingentzia profesionala)?

Laneko istripurik izanez gero, joan zaitez hurbilen duzun Ibermutuamurren asistentzia-zentrora. Gure asistentzia-zentroak non dauden ez badakizu, jar zaitez harremanetan **telefonoz arreta osoa emateko 24 orduko linearekin, 900 233 333 telefono zenbakira deituta,** edota kontsultatu gure **zentro-sarea** gure webgunean: www.ibermutuamur.es.

Komenigarria da «osasun-asistentzia eskatzeko agiria» beteta eramatea (gure webgunean deskarga dezakezu). Dokumentu hori eraman ezean, ez ahaztu Gizarte Segurantzako txartela, NANA edo zure nortasuna eta lan egiten duzun enpresa adierazten dituen beste edozein dokumentu eramatea.

Hil ala biziko larrialdien eta istripu larrien kasuan, deitu berehala:

Telefonoz arreta osoa emateko 24 orduko lineara, 900 233 333. Linea horren bitartez, laneko istripuak eta laneko gaixotasunak eragindako larrialdi medikoak atzertzen eta kudeatzen dituzte, Espainian zein atzerrian.

Atzerrian egonez gero, deitu zenbaki honetara asistentzia-zerbitzua eskatzeko: +34 917 445 101.

Edo zure eremu geografikoko **larrialdi-telefonora: 112** (tokian tokiko).

Kontingentzia profesionalak baja eragindako kasuan

Osasun-asistentzia jaso ondoren ezin baduzu lanean jarraitu, Ibermutuamurren osasun-zerbitzuek zure parte medikoaren bi kopia egingo dituzte, bat gorde dezazun eta bestea enpresari eman diezaiozun. Hala, enpresari egiaztatu ahal izango diozu zure egoerak lan-jarduerarekin jarraitzen eragozten dizula. Baja-egoera horrekin hasten dira aldi baterako ezintasunagatik ematen diren prestazio ekonomikoak alegia, lan-jarduera egin ezin duzun bitartean jasoko dituzunak.



Zein zerbitzu gehiago eskaintzen dizkizu mutuak?

Laneko osasun-arretaren zerbitzu osoa:

Bizkar Eskola: asistentzia globala ematen du, Ibermutuamurrekin barne hartzen dituen aldi baterako ezintasun-prozesuak dituzten pazienteen bizkarreko patologien arreta eta balorazioa hobetzeko aukera ematen duena.

Biomekanika Laborategia: era objektiboan balioesten dute laneko istripu edo gaixotasun batengatik aldi baterako ezintasun-egoeran dauden langileen (eta beren ohiko lan-jardueretara itzultzeko mugak edo zailtasun bat dutenen) muskuluen eta eskeletoaren sistemaren funtzio-egoera.

Errehabilitazio Unitatea eta Bihotzaren Teleerrehabilitazio Unitatea: Berriki bularreko angina, miokardioko infartua, eta abar izan duten eta Ibermutuamurrek bere gain hartzen duen aldi baterako ezintasun-prozesuan (baja medikoa) dauden pazienteak erabat errehabilitatzeko unitate espezializatua da. Paziente horien bizikaltatea hobetzen du, bai eta gaixotasun horrek sortutako ezintasun iraunkorren kopurua murriztu ere.

Loaren Unitatea: Ibermutuamurrek barne hartzen dituen eta zuzenean loaren desorekarekin lotutako baja-prozesuak dituzten pazienteen diagnostikoak eta ebaluazioak egiteko unitate espezializatua da.

Telemedikuntza eta Urruneko Asistentziak

Osasun Zerbitzua (SAR-zerbitzua): Gure zentro guztiek bideokonferentzia- eta digitalizazio-sistemak dituzte; bai diagnostiko-probetarako –erradiologiak, elektrokardiografiak eta analitikak–, bai pazienteen historia klinikoetarako. Hornidura teknologiko horri esker, emaitzak hainbat espezialistak kontsultatzen eta aztertzen dituzte aldi berean.

Gainera, Urruneko Asistentziako Osasun Zerbitzu bat dugu istripua izan duten langileen ebakuntza aurreko eta osteko prozesuen kontrola eta jarraipena egiteko. Istripuaz gain, langile horiek patologia kroniko jakinak ere izan ohi dituzte. Hala, beharrezkoa izaten da atxikita dauden tratamenduari etengabeko jarraipena egitea, patologia horiek pazienteari eragin diezazkioketen konplikazioak direla eta.

Arreta- eta informazio-zerbitzuak:

Telefonoz arreta osoa emateko 24 orduko linea: Doako telefono zenbaki honetara deituta, 900 233 333, Ibermutuamurrekin lotuta behar dituzun kudeaketa guztiak egiteko aukera izango duzu. Hala, laneko istripu bat edo laneko gaixotasun bat izanez gero, osasun-asistentzia eskatu ahal izango duzu, bai Espainian, bai atzerrian; 24 orduz eta urteko egun guztietan. (Atzerritik asistentzia eskatzeko, deitu + 34 917 445 101 telefono-zenbakira.) Halaber, kontsultak egin ahal izango dituzu estaldurei, prestazioei eta zerbitzuei buruz, eta Ibermutuamurreko zentro-sareari buruzko informazio osoa jaso ahal izango duzu. Era berean, gerta daitezkeen kezak eta erreklamazioak jakinarazteko modua ere eskaintzen dugu, Ibermutuamurrek ematen dituen zerbitzuekin loturik betiere.

Horrez gain, zerbitzu honen bidez, atzerrira joandako edo bidalitako langileen izapide eta kudeaketei buruzko informazioa jaso ahal izango duzu.

Bezeroarentzako Arreta Bulegoa: gure zerbitzuei, prestazioei eta estaldurei buruzko informazioa ematen du eta gure bezeroen eskaerak, iradokizunak eta erreklamazioak kudeatzen ditu.

Pazientearen Ataria: Ibermutuamurren asistentzia-prozesuren bat izan baduzu, atari honek, Internet bidez, zure historia klinikoa (Ibermutuamurren izan dituzun gertakari eta asistentzia medikoak) kontsultatzeko aukera emango duzu, eta datuen eskuragarritasuna eta konfidentzialtasuna bermatuko dizute, baita horietara sarbidea ere.

Beste zerbitzu batzuk:

Pazienteentzako gidaliburua: azalpen-dokumentu horretan mutuako pazienteek eskura ditzaketen zerbitzu guztiak, asistentziakoak zein arreta eta informazioak, prestazioak eta eskubideak zehazten dira, Ibermutuamurren asistentzia-prozesua eragin duen kontingentziaren arabera. Gidaliburu hori zerbitzu medikoetako harrera-mahaian, zentroetako arreta-bulegoetan eta korporazioaren webgunean eskura daiteke. Gainera, zure ordenagailuan, *smartphone*an edo *tablete*an deskarga dezakezu, bidi-kode baten bidez.

Laneko segurtasun- eta osasun-ataria: Laneko arriskuak prebenitzeko espezializatuta dagoen atari honen helburua da benetako prebentzio-kultura hedatzea eta sustatzea, laneko ezbehar kopurua murrizteko eta enpresa-jarduketa onak sustatzeko.

Ibermutuamur gehiago ezagutzeko

Gaur egun, **Ibermutuamurrek** 137.000 enpresa **kidetu baino gehiago ditu** Espainia osoan, **milioi bat langileri baino** gehiagori **babesa ematen die** eta 100 zentro propioko **eta ia 1.000 zentro itunduko** zentro-sarea du Espainia osoan.

Zerbitzuen kalitateari buruz **Ibermutuamurrek** urtero egiten duen inkestako datuen arabera, **mutualisten % 91k adierazi dute** mutuan jasotako zerbitzuekin «pozik» daudela.





ibermutuamur

Gizarte Segurantzaren 274,
mutua laguntzailea

Ibermutuamur, zure mutua



900 23 33 33

www.ibermutuamur.es



ISO 14001:2004



ISO 9001:2008



JARRAITU SARE SOZIALETAN:

